



ORRI INFORMATIBOA



Igeldoko Herri Kontseilua - Itsas Aurre Kultur Etxea. Herriko plaza Z/G. IGELDO
Tfona.: 943-31 30 30 e-posta: infogeldo@euskalerrria.org

ERREPORTAJEA:

ESPEZIE EXOTIKO

INBADITZAILEAK IGELDON /6-9



AURKIBIDEA

Udazpen Festa /2

Ieltxo Kultur Elkarte /3

Hauteskundeak /3

IHKk eta etorkinen
zentroko gazteek,
errekonozimendua /4

'Plaierotako' taldearen
bazkaria /4

Igeldoko Gaztiak /5

Igeldoko Herri
Kontseiluko gaiak /10

Kixmi: Gabonetako
egitaraua /12

LIZARDI PELOTA ELKARTEA:

“Mutil eta neska koxkorrek
pelota probatzea nahi dugu” /11

Kaixo herrikide!!!

Bi hilabeteotan mugimendu dextente izan da herrian eta guztiak bildu ahal izateko, 12 orritako alea duzu oraingoa. Horrez gain, Gabonak

datoz eta jai egun hauetan izango diren ekintzak ere bildu ditugu, hala nola, Kixmiren eskutik eta gazteen eskutik izango direnak. Bestalde,

Igeldon ditugun espezie inbaditzaileei buruzko informazioa aurkituko duzu ale honetan eta Lizardi Pelota Elkartearen berri izango duzu.

Bi eguneko festa ederra, udazkenari ongi-etorria eginez

Urtero bezala, Udazken Festa izan zen urriko azkenurreko asteburuan. Sardinada, antzerkia, azoka, herri bazkaria eta taloak izan ziren, besteak beste.

Udazkenari ongi-etorria egiteko, urtero bezala, Udazken Festa izan zen urriko azkenurreko asteburuan, hau da, urriaren 22 eta 23an. Sardinadarekin hasi zen festa eta herritarrek festa gogoz zeudela esan liteke, sardinadako txartel guztiak saldu baitziren; 70 txartel, hain zuzen. Sardinadaren ondoren, antzerki emanaldia izan zen. Aipatu behar da, gaizki ulertu bat tarteko, *Herioa eta dontzeila* antzezlanaren ordez, *Gezurrezko printzea* antzezlana eskaini zela. 52 lagun gerturatu ziren emanaldira.

Azoka, meza eta hamaiketakoa

Igande goizean, azoka izan zen eta eguraldia lagun, giro ederraz gozatze-ko aukera izan zen. Plazan jarritako postuetan, denetarik erosteko aukera



Atsedetik hartzeko aukerarik ez zuten izan herriko emakume talogileek.

egon zen: txorixoak, barazkiak, sagarrak, gaztainak, eztiak, gaztak... Lizardin, berriz, abereak izan ziren. Goiz partean, baita ere, meza izan zen eta meza bukatzean, hamaiketako ederra prest izan zuten jubilatuek.

Patxi eta Martina Olasagasti, omenduak

Ohi bezala, herri bazkaria egin zen Itsas Aurren. 140 herritar elkartu

ziren. Igeldoko aitona-amona zaharrenak ere omendu ziren: Patxi eta Martina Olasagasti. Egurrean tailatutako erloju bana jaso zuten (Martina ez zen bertan izan).

Festa behar bezala bukatzeko, arratsalde partean, talo goxo-goxoak egiten aritu ziren herriko emakume talogileak. Eta bitarte horretan, motozerrarekin egur taila erakustaldia egin zen plazan.



Azokan denetarik erosteko aukera izan zen: txorixoak, sagarrak, barazkiak...



Patxi Olasagasti, Igeldoko aitona zaharrena.

Zine jana eta korto txapelketa antolatu ditu Ieltxok, datozen bi hilabeteetan

Bi hilabete gaiz ezberdinak landuko ditu kultur elkarteak. Urtarrila eta otsailean zinea izango da gaia.

Ieltxo kultur elkarteak hainbat ekintza jarriko ditu martxan urte berriarekin batera. Jakinarazi duenez, bi hilabetero gai jakin bat hartuko du oinarri eta gai horren inguruan antolatuko ditu ekintzak. Datozen bi hilabeteetan, esaterako, hau da, urtarrila eta otsailean zinea izango da gaia. Hori horrela, aurreko ikasturtean hain arrakas-



Urtarrileko azken igandetik aurrera, zine jana bueltan izango da.

tatsua izan zen zine jana izango da eta baita korto txapelketa ere, besteak beste.

Martxoa eta apirila, berriz, musika eta bidaiak izango dira gaiak eta maiatza eta ekainean, dantza eta antzerkia.

EGITARAUA:

- Urtarrilak 13 edo 14an korto emanaldia izango da.
- Urtarrilak 29, otsailak 12 eta 26an zine jana egongo da helduentzat.
- Otsaileko lehen astean windows movie maker ikastaro bat egongo da.
- Otsailak 18an herriko lehen korto txapelketa izango da. Informazioa aparteko orri batean banatuko da.
- Haurren zine jana zehazteko dago.

Amaiurrek gehiengoa lortu du Igeldon

Azaroaren 20an, Estatu espainiarreko hauteskundeak izan ziren eta Amaiur koalizioa nagusitu zen Igeldon. Gehiengo absolutoa lortu zuen 327 botorekin. Bigarren indarra EAJ-PNV izan zen. 108 boto lortu zituzten jeltzaleek. Abstentzioa %27,5ekoa izan zen. 831 igeldoarrek izan zuten botoa emateko aukera eta horietatik 602k eman zuten.

Estatu espainiarreko hauteskundeak 2011

Alderdiak	Botoak
Amaiur	327
EAJ-PNV	108
PP	84
PSOE	40
UPyD	12
EQUO	8
PACMA	6
IU	5
Boto baliogabeak	6
Boto txuriak	6



Botoak kontatzen aritu ziren mahaian egotea tokatu zitzaizen hiru igeldoarrak, eta Amaiur, EAJ-PNV eta PPko apoderatuak.

Herri Kontseiluak eta Etorkinen Zentroko gazteek errekonozimendu diploma jaso dute

Sos Arrazakeria taldeak errekonozitu nahi izan du Igeldoko adin txikiko etorkinen zentroak hasieratik gaur egun arte izandako bilkaera.

Gipuzkoako Sos Arrazakeria elkarteak, azaroaren 5ean, Gipuzkoa Solidarioa ekitaldia antolatu zuen Kursaaan eta Igeldoko Herri Kontseiluak eta Etorkinen Zentroko gazteek errekonozimendu diploma jaso zuten. Aurtengoan bizilagunen arteko harremanak azpimarratu dituzte, etorkinek, bizi diren inguruneetan integratuz, bertakoekin sortzen dituzten laguntasun eta bizilagun harremanak hain zuzen ere.

Hasierako jarrera ezkorrei buelta eman izana

Sos Arrazakeria taldekoek, Igeldoko Herri Kontseiluari eta zentroko



Larraitz Dorronsoro eta Omar Benkhayour, diploma jaso ostean.

gazteei bizilagun errekonozimendu diploma emateko nahia azaldu zuten, Igeldoko adin txikiko etorkinen zentroak hasieratik gaur egun arte izandako bilakaera ikusirik. Alde batetik, Igeldoko Herri kontseiluari diploma hau emateko arrazoi nagusienak honakoak izan

ziren: gai korapilatsu honen aurrean, hasiera bateko beldur eta jarrera ezkorrei buelta eman izana eta egungo harreman naturalera iristeko egindako lana. Bestetik, zentroko gazteek Igeldoko egunerokotasunean integratzeko izandako jarrera baikorra ere azpimarratu zuten.

Ekitaldian izan ziren gai honetan hasieratik lanean aritu diren zenbait herritar eta baita zentroko zenbait gazte, nahiz eta egun 18 urte bete izanagatik, ez diren Igeldon bizi. Diploma, Juan Karlos Izagirrek, Donostiako alkateak banatu zuen. Gazte etorkinaren izenean Omar Benkhayour-ek jaso zuen eta herritar bezala, Larraitz Dorronsorok.

Igeldoko kasua ez da bakarra eta ekitaldian, bizilagun harreman ezberdinak saritu ziren. Errekonozimendu diplomak Gipuzkoako zenbait pertsona ospetsuk banatu zituzten (kultur mundukoak, kirolariak, politikoak...).

'Plaierotako' azainak gogoratzeko, bazkaria

Garai bateko Igeldoko "plaierotako" futbol taldekoek bazkaria egin zuten azaroaren 19an, Din-din elkartearen. Lehendik ere, beste zenbait aldiz elkartuak izan arren, Orri Informatibokoak oraingoan izan dugu elkartze honen berri.

Argazkian ikusten den moduan, gehienak egun futbolerako nahiko motelduak egonagatik ere, garai batean sasoiko izan ziren. Historia eginenez, 1970. hamarkada inguruan hasi ziren lehendabizikoz hondartzan jokatzen eta 1990. hamarkada arte mantendu zen Igeldoko taldea. Urte horietan, askok 18 urte inguru zituzten eta futbolerako trebezia, 2 aldiz finalera iritsi baitziren, nahiz eta bakar



Garai bateko Igeldoko 'plaierotako' futbol taldeko jokalariek.

bat ez irabazi. Igeldotik urtero ateratzen zen ekipoa eta urteren batean 2 ekipoa ere osatu zituzten. Bata Igeldoko eta bestea Txubillo izenarekin.

Aipamen berezi moduan, 1973

urtean, Joxe Miel Arrutik golea-tzaile onenaren saria jaso zuen, eta talde bezala, kiroltasun saria ere jaso zuten urteren batean. Beti asto fama, baina to kopa!

Futbol txapelketa Xbox-ean eta parranda antolatu dituzte gazteek, Gabonetan

Abenduaren 23an, futbol txapelketa izango da Xbox-ean, herritar guztiei zuzendua. Kultur etxean izango da 22:00etatik aurrera. Gabon Gauean, berriz, parranda.

Igeldoko gazteak elkartu eta talde gisa martxan jarri zirela urtea beteko da laster eta bitarte honetan ekintza ugari antolatu dituzte, eurek zehaztutako baloreekin bat eginez. Gazteak eta adin tarte ezberdinetako herritarrak elkartzea eta harremanak sendotzea helburu bat izanik, Gabonei begira bi ekintza antolatu dituzte: futbol txapelketa Xbox-ean eta parranda. Futbol txapelketa abenduaren 23an izango da, ostiralez. Kultur etxean izango da 22:00etatik aurrera. Parranda berriz, Gabon Gauean izango da, hau da, abenduaren 24an. Gau osoko festa izango da, 00:30etatik 08:00ak arte.

Gazte Topaketan, giro ederra

Igeldo-Añorga-Antiguoko gazteen arteko topaketa egin zen azaroaren 19an, Igeldon. Goizean jokuak egin zituzten. Parte hartze handirik ez zen izan, baina elkartu zirenak giro ederrean ibili ziren. Bertso bazkarira ere espero baino jende gutxiago gerturatu zen, baina ez zen traba izan giroari eusteko. Imanol Lizarazu eta Beñat Gaztelumendi bertsolariak ere lagundu zuten euren saioarekin.

Bazkalostean triki-poteoa egin zen



Gazte Topaketan jokuak egin ziren eta asto karrerak sekulako saltsa jarri zuen.



Euskera eta Nafarroaren egunean, kantu jira antolatu zuten Lezkarri abesbatzarekin.

herriko taberna ezberdinetan. Kanpin alderaino zabaldu zuten giroa. Ibiliaren eraginez, gosetu zirenek afaltzeko aukera ere izan zuten eskola zaharreko arkupetan. Festa goizaldera arte luzatu zen, kontzertuak izan baitziren lokalean: NPJ eta Ai ene.

Errepikatzeko moduko kantu jira

Abenduaren 3an Euskeraren eta Nafarroaren eguna izan zen. Hori horrela, *Euskeraz bizi* mezuarekin “mural” antzeko bat egin zuten gazteek frontoi kanpoko paretean. Ondo-

ren, Nafarroako Erresumaren 1512ko konkistari buruzko dokumentala eskaini zuten kultur etxean. Eta eguna bukatzeko, kantu jira antolatu zuten herrian zehar, Lezkarri abesbatzako kideekin. Kaxkoko tabernetan kantuan ibili ostean, hala nola, Txapela, Mendizorrotx eta Calongen, lokalean bukatu zuten luntx eder batekin. Gazteek zein koruko kideek oso positibotzat jo zuten kantu jira, herrian giroa jartzeaz gain, adin tarte ezberdinetako herritarrak elkartu baitziren. Errepikatzekotan geratu ziren.



'Euskeraz bizi' mezua zabaldu dute.



Lili, Harkaitz, Danel, Nora eta Arantxa Txintxurreta panpako landare baten ondoan.

Espezie exotiko inbaditzaile bat erosi aurretik, ondo pentsatu eta asko informatu

Azken aldian espezie inbaditzaileei buruz geroz eta gehiago entzuten da gure ingurunean. Liztor asiaticoa litzateke horietako kasu bat, animaliei dagokienean, baina landaretzan ere kasu ugari aurki

daitezke. Gai honek zer pentsatua sortarazi digu eta informazio gehiago lortze asmotan Arantxa Txintxurreta biologoarekin elkartu gara eta baita Juantxo Eizagirre erlezainarekin ere.

Kanpotik ekarritako edo etorritako landare eta animalia ugari ditugu gure inguruan. Zenbait kasutan, ederrak direla iruditu eta askorik pentsatu gabe, gure artera ekarri ditugu, bertako espeziekin batera nahastuz. Panpako landarea edonon aurki dezakegu, esaterako. Baina ba al dakigu ze ondorio eragin dazakeen horrek? Ba al dakigu espezie exotiko inbaditzaileak direla?

Halaxe azaldu du Arantxa Txintxurreta Igeldoko biologoak, espezie inbaditzaileen gainean: “Kanpotik datozen espezieak dira, nahita edo nahigabe. Gure ingurunera egokitzen dira, tokitxo bat aurkitu dutelako eta lehiakiderik ez dutelako. Ondorioz, asko ugaltzen dira eta inbaditzaile bilakatzen dira. Sortzen dituzten ondorio negatiboak dira: gaixotasun ezezagunak ekartzea, ekosisteman des-

orekak sortzea eta ondorioz, bertako espezieak gutxitzea, hil egiten direlako edo joan egin behar dutelako. Espezie inbaditzaileak arriskutsu bilakatzen dira euren habitat naturaletik urruti, beraien habitatean ez dira arriskutsuak, haiek eta ingurunea horretara moldatua dautudelako”.

3 animalia inbaditzaile, Igeldon
Kontzeptua argitu ostean, Igeldon

animalietan eta landareetan zein espezie inbaditzaile aurki daitezkeen azaldu du: “Liztor asiaticoa, Amerikar ibai-karramarroa eta Karpin arraina”. Espezie inbaditzaile hauen ondorioz, bertako zenbait espezie arriskuan egon daitezkeela nabarmendu du Txintxurretak: “Igeldoko kasuan, ezin dugu ahaztu Mendizorrotz mendikatean, hau da, Oriotik Donostiarako ingurune osoan, Hegoaldeko zuhaitz igela, *Hyla meridionalis*, babestua dagoela. Eta lehendik ere arriskuan dauden espezieentzat, oraindik eta kaltegarriagoak dira espezie inbaditzaileak, espezie indartsuei eragiten badie, ahulenei zer esanik ez”. Bestalde, Txintxurretaren ustetan, erleen kasuan argi ikus daiteke espezie inbaditzaileek kalte ekologiko zein ekonomikoak eragin ditzaketela. “Batetik, erleak ekoizpen moduan erabiltzen ditugulako nagusiki, eta bestetik, erleak betetzen duten funtzio polinizatzaileagatik”.

Landareak, nahita ekarriak

Landare inbaditzaileen artean, 5

“**Arantxa Txintxurreta**
biologoa:
Espezie inbaditzaileak berez ez dira txarrak, baina hemen ditugunak akabatzeke gaitasuna dutenez, inbaditzailetzat eta kaltegarritzat jotzen dira ”

espezie aipatu ditu biologo igeldorrrak: Panpako landarea, *Budleja davidii*, *Fallopia japonica*, Sasi arkazia eta *Crocsmia*. Landare inbaditzaileak gehienetan nahita ekarritakoak izaten direla, nabarmendu du, batez ere lorezaintzan eta dekorazioan preziatuak izaten direlako landare exotikoak. Gainera, Igeldoko ingurunean, landareei dagokienean ere, babestutako guneak badi-rela gogorarazi du: “Itsas labarrak, Agitiko hariztia, Mendizorrotzeko mendebaldeko itsas aldea. Gune hauetan espezie inbaditzaile batek

kalte handia egin dezake. Aranzadik Donostiako Udalarentzat egindako azterketa batean dioenez, Donostialdeko gunerik biodibertsosena (espezie aldetik), Mendizorrotz ingurunea da”.

“Kanpoko espezieak hobe hilda, libre uztea baino”

Bertako espezieak desagertzeko arrazoi nagusienak bi direla azaldu du Txintxurretak: habitat deuseztatena (ingurunea txikitzea) eta espezie inbaditzaileak. Eta azken hauen kasuan, kontzienteki jokatzekeo azpimarratuz, honako mezu hau luzatu du: “Kanpoko espezieak hobe hilda, libre uztea baino. Mezua gogorra dela irudi daiteke, baina halaxe da. Espezie exotiko inbaditzaile bat erosi aurretik ongi pentsatu eta asko informatu behar da. Espezie inbaditzaileak berez ez dira txarrak, baina hemen ditugunak akabatzeke gaitasuna dutenez, inbaditzailetzat eta kaltegarritzat jotzen dira. Bertako espezieak indartzea eta baloratzea garrantzitsua da”.

ESPEZIE EXOTIKO INBADITZAILEAK, IGELDON

ANIMALIA INBADITZAILEAK:

● Liztor asiaticoa, *Vespa velutina nigritorax*:

Gipuzkoako zenbait herritan bezala, Igeldon ere aurkitu da. Hauek duten pozoia erleak dutena baino askoz ere indartsuagoa da. Liztor hau erleetaz elikatzen da eta hamar liztor nahikoak dira erlauntza bat hondatzeko.

● Amerikar ibai-karramarroa, *Procambarus clarkii*:

Izenak dioten moduan ibaieetan aurkitzen da batez ere, ur gezetan. Igeldon ibairik ez dugun arren, bertako igelaren ur putzutan aurkitu izan da eta oso kaltegarria da zapaburuak jaten baititu eta ondorioz igelen ugalketa oztopatzen du.

● **Karpin arraina, *Carassius auratus*:** Etxeetan akuarioan izaten diren arrain laranja dira. Hauek ere ur gezetakoak izaten dira eta Igeldon, badirudi tarteka igelen putzuren batean aurkitu izan dela bakarren bat. Nahiz eta orokorrean kaltegarritzat ez hartu, igelen arrautzak jaten dituzte eta ugalketa eragotzi.

LANDARE INBADITZAILEAK:

● **Panpako landarea, *Cortaderia selloana*:** 80. hamarkadan lorezaintzarako eta dekoraziorako asko

erabili zen eta hori izan zen arrazoi nagusia Argentinan landare hau gure ingurunera ekartzeko. Igeldon ugaria da, Buena Vista, Perus, Tximistarri inguruneetan batez ere. Oso zaila da kentzea, ikusten den lorea bera, haziak baitira. Donostiako Udalak iaz zenbait gunetan kimikoki tratatu zituen (Igeldon Buena Vista inguruan), Foru Aldundiak ere badu planen bat, baina oso zaila da errotik akabatzea.

● ***Budleja davidii*:** Landare hau Txinarra da. Oso erraz birsortzeko gaitasuna du eta intsektuak behar ditu horretarako. Landare more bat da eta Igeldon, igoerako errepidean eskuin aldean ikus daitezke.

● ***Fallopia japonica*:** Bambú mota bat da eta Japoniatik dator. Erribera inguruneak erraz izorratzen ditu, Igeldon Lasarmendi bidean aurki genezake. Oso zaila da akabatzea, sustrai oso luzeak baititu.

● **Sasi arkazia, *Robinia pseudoacacia*:** Zuhaitz mota bat da eta basoak sortzen ditu. Tximistarri inguruan bada zuhaitz mota honen basotxo bat, baita Igeldoko igoerako errepide inguruan ere.

● ***Crocsmia*:** Tximistarri inguruan zein GR ibilbidean zehar ere aurki daiteke. Lore laranja du eta hosto berde luzeak.

Juantxo Eizagirre erlezaina:

“Erlea hemengo liztorrarekin moldatu da eta oraingoarekin ere moldatuko da”

Liztor asiaticoa orain bi urte iritsi zen Gipuzkoara eta pixkanaka-pixkanaka zabaltzen ari da. Hemengo erleak akabatzen ditu eta zenbait lekutan eragin dituen kalteak handiak izan dira. Igeldon, oraingo, kabi bakarra aurkitu dute. Orri Informatiboak Juantxo Eizagirre erlezainarekin hitz egin du egoeraren berri izateko. Eizagirre ez dago kezkatuta eta erlea, denborarekin moldatuko dela uste du.



Juantxo Eizagirrek Aitzarte baserrian ditu erleak, 1997 urtetik.

“Erlea hemengo liztorrarekin moldatu da eta oraingoarekin ere moldatuko da. Gizakiaren esku hartzearekin ez da galdu eta honek lortuko al du ba? Ez dut uste. Egokitu egingo dira, nahiz eta denbora behar. Eta erleak egokitzen ez badira, ikusiko da zer gertatzen den. Iruditzen zait zerbait ikasi behar dugula hemendik. Hau gertatu bada zerbaitegatik da”, dio Juantxo Eizagirre Aitzarte baserriko erlezainak, liztor asiaticoa ganean galdetuta.

Eizagirrek ikusi ditu liztor asiaticoak nola hiltzen zizkion bere erleak, baina ez dago kezkatuta. Igeldo aldean izaten ari den eraginarekin. “Udaran 15 minuturo erle

bat nola eramaten zidaten ikusten nuen eta hasieran larritu egin nintzen. Raketarekin hantxe ibiltzen nintzen liztorrak akabatzen. Baina al baitari batek esan zidan ez zela kezkatzekoa eta lasai egoteko. Jaizkibelen, esaterako, hironaka eta launaka eramaten aritu dira”.

Kabiak ikusiz gero, abisua

Liztor asiaticoa orain dela pare bat urte iritsi zen Gipuzkoara, Iparraldetik. 5 bat urte behar izan ditu Pirineoak zeharkatzeko, 2004an iritsi baitzen Frantziara, Bordele ingurura. Orduetik hainbat herritako erlauntzetan kalte handiak eragin ditu, erleak hiltzen baituzte. Liztor kabi ugari aurkitu

dituzte, esaterako, Irunen, Hondarribian, Hernanin, Lasarten, Urnietan... Igeldon, oraingo, bakarra aurkitu dute. Amezti inguruko zuhaitz batean zegoen. Igeldon, agian, ez dela hainbeste zabalduko uste du Eizagirrek.

Dena dela, orain, neguan izango da kabiak ikusteko aukera gehiago, historik ez baitute izango zuhaitzek. Eta erleak bezala, liztorrak ere hibernatzen ariko dira neguan eta garai ona izan liteke akabatzeko. Norbaitek zerbait ikusiz gero, abisua pasatzeko dei egin du Eizagirrek: “Gipuzkoako Erlezainen Elkartearekin harremanetan jarri (943 80 56 51) edo dena delakoarekin”.

Egokitu bitartean, metodo ugari Eizagirrek azaldu bezala, erleek liztorrari nola aurre egin euren ikasi behako dute. “Esaterako, asiako erleak aurre egiten dio liztorrari. Defentsa metodoak garatu dituzte. Liztorrari banaka eraso beharrean, taldeka erasotzen diote. Lurrera botatzen dute, eta 45°-ko beroa sortzen dute hegotei eraginez. Liztorra ito egiten da”.

Dena dela, bitarte honetan, hainbat metodo eta tranpa darabilte erlezainek, erleei laguntzeko. “Okerrena da, tranpa horietan beste xomorroak ere erortzen direla”, dio Eizagirrek.

Liztor kabiak, 15 metroko alturan egoten dira, gutxi gora-behera, eta Frantzia metodo berri bat darabilte kabi horiek txikitzeko. Ehiztarien bidez, tiroka puskatzen ari dira kabiak, perdigoi xeheko kartutxoak erabilia. Hernanin ere

akabatu dute kabi bat, modu horretan. Eizagirre jakinaren gainean dago eta metodo ona dela dio, “barrutik puskatzen baita kabia, liztorrak bertan direla”.

Polinizazioan eragina

Erleek polinizazioan laguntzen dute eta liztor hiltzaile honen eraginez, ondorioak izan daitezkeela dio Eizagirrek, baina ez batzuk adierazi dutenaren adinakoa. “Batzuk esaten dute 4 urtetan mundua desagertuko litzatekeela, baina nire ustez hori ez da horrela. Egia da galera handia dela, erleak direlako polinizatorako bizkorrenak eta eraginkorrenak, baina zeregin berdina egiten dute xomorro gehienek: tximiletek, matxinsaltoek...”.

“Erlea ez da gaiztoa”

Juantxo Eizagirre, Aitzarte baserrian bizi da 1997 urteaz geroztik eta ordu-

tik dauzka erleak. 5-6 urtetan SOS-Deiakekin kaletik erlauntzak kentzen aritu zen lanean eta bertan jasotako erleak dira etxean dauzkanak, “denak reziklatutako erleak dira”, dio. Kanean bildutako erlauntzekin, 22 kaja ekarriak ditu etxera. Egun, dozena bat bakarrik du. Etxean erleak dituela dio, “biodibertsitatea mantentzeko beharrezkoa delako”.

Erleak duen garrantzia azpimarratuz, argi utzi nahi izan du, erlea ez dela gaiztoa. “Orain asko esaten da: *kontuz erlearekin*, baina erleak ez du ezer egiten berari ezer egiten ez badiozu. Kontuan izan, erleak badakie la eztena sartuz gero, hil egingo dela.

Gainera, polinizazioan sekulako garrantzia izateaz gain, sortzen duenak, osasun aldetik ere izugarriko balioa duela nabarmendu du: “eztia, propoleoa, jalea real... Eta minarentzako, erremedio ona: erlearen ziztada”. ■



Ezkerreko irudian, Igeldon aurkitu duten liztor asiaticoen kabia ikusi daiteke. Amezti inguruan aurkitu zuten. Urriaren 18an ateratakoa da argazkia. Goian, kabia ikus daiteke gertuago. Lurretik 15 metro ingurura egin ohi dituzte kabiak, zelulosazkoak. 70 cm luze eta 55 cm zabal izaten dira. 10.000 liztor kabitzen dira.



Liztor asiaticoa
 Tamaina handiena: 3 cm langileek eta 5 cm erreginak.
 Itxura: beltza, ertz hori-laranjak.
 Hanka muturrak horiak. Aurean bi pintza indartsu.
 Eztena, 6 mm-koa.

Eskola zaharreko teilatua konpontzeko konpromisoa hartu du Donostiako Udalak

Azaroaren 10ean bilera egin zuen Igeldoko Herri Kontseiluak Donostiako Udalarekin eta besteak beste, eskola zaharreko teilatua konponduko duela azaldu zuen. Bestalde, Herri Kontseilua plangintza bat lantzen ari da.

Igeldoko Herri Kontseilua hainbat gai-
ren inguruan aritu da lanean azken bi
hilabeteotan. Kontseilukideen arteko
bilerak egiteaz gain, azpimarratu behar
da azaroaren 10ean Donostiako
Udalarekin egindako bilera. Bertan,
besteak beste, Eskola zaharreko teila-
tua konpontzeko konpromisoa hartu
zuen Donostiako Udalak.

Herri Kontseiluak eta Donostiako
Udalak hitz egindako gaien artean zeu-
den, Eskola zaharra eta sindikatuaren
egoera. Bi eraikinetako teilatua gaizki
daudela eta momentu honetan, garran-
tzitsuena, bien konponketa dela azaldu
zuten kontseilukideek. Donostiako
Udalak Eskola zaharreko teilatua kon-
ponduko zuela azaldu zuen, baina sin-
dikatuaren kasuan, kooperatibako junta
berritzea zen eman beharreko aurrene-
ko pausoa.

Sindikatuak junta berritu da

Azaroaren 27an bilera egin zuten sindi-
katuko kooperatibako kideek eta junta
berritu zuten. Sindikatuari dagozkion
gaietan aurrera egiteko beharrezkoa zen
junta berritzea. Orain, junta horrek Herri
Kontseiluarekin eta Donostiako Uda-
larekin hitz egin beharko du sindikatu-
rekin zer egin eta zer erabilpen eman
erabakitzeko. Junta osatzen duten kide-
ak honakoak dira: lehendakaria, Joxe
Miel Arruti; lehendakari ordea, Mikel
Altuna; idazkaria, Eneko Dorronsoro;
diru-zaina, Jon Lizarazu; eta bokal-
ak, Koldo Lizarralde, Juanjo Gabilondo,
Joxe Etxebeste eta Agustin Matxain.

Donostiako Udalaren proiektuen berri ematea

Igeldo eta Donostiako ordezkarien arte-
an hitz egindako beste gaietako bat izan
zen, Donostiako Udalak bere proiektuen

inguruan jakinaren gainean jartzea Herri
Kontseilua. Donostiako Udalak azaldu
zuen oraingoz ez duela formaturik tra-
mitazio horietarako, baina helburuen
artean duela bide hori lantzea.

Gai honekin lotuta, Donostia-Orio
bidean (GR 121, Santiago bidea) Do-
nostiako Udalak egitekoa duen obrak
galdetu zuen Herri Kontseiluak. Izan
ere, prentsan obraren inguruko azal-
penak zabaldu ziren. Donostiako
ordezkariek argi utzi zuten ez dagoela
ezer erabakita.

Gaske lokaleko teilatua nola konpondu

Herri Kontseiluak hilabeteotan aztergai
izan du baita ere, gaske lokala. Lokala
ez dago egoera onean, ura sartzen da
eta Herri Kontseilua aztertzen ari da
obra nola egin. Lokala itxita dago egu-
nerokotasunerako. Erabili nahi duenak
giltza eskatu behar dio teknikariari.

Urte hasiera aldera, plangintzaren berri emateko, batzarra

Herri Kontseilua plangintza bat lan-
tzen ari da orain. Ez dute zehaztu egu-
nik, baina aurreratu dutenez, urte
hasiera inguruan herri batzarra deitu-
ko dute egiten ari direnaren berri
emateko.

Herritarren emailekin agenda osatzen

Herri Kontseilua agenda bat egiten ari
da herriko emailekin eta dei egin dute
ahal izanez gero, herritarrek euren
helbideak bidal ditzatela Herri
Kontseiluko helbidera: *herrikontsei-
lua@gmail.com*. "Horrela ohar bere-
ziren bat baldin badago email bidez
azkarrago jakinaraziko da", azaldu
dute. ■

KAXKOAN TXAKURREKIN IBILTZEKO JARRAIBIDEAK

Azken hilabeteetan herritar ugari hur-
bildu zaigu kaxkoan txakur ugari aske
dabilela esaten, eta batzuetan hau-
rrak ibiltzen diren toki eta ordu berdi-
netan gainera. Honek alde batetik
haur eta guraso batzuei ezinegona
eta urduritasuna eragin die, eta bes-
talde beraien beharrak umeak jolas-
ten ibiltzen diren kaxkoko parketako
edozein tokitan egin izanak kexa
nabarmenak sortu ditu, haurrek zein
helduek zapaldu dituztelako. Hori dela
eta herriari sensibilizazio eta ardura
hartzeko mezu bat luzatu nahi diogu.

Herri Kontseilu bezala gogorazi
nahi dugu legediaren arabera txaku-
rrak lotuta eraman behar direla, ezin
direla parke eta lorategietan ibili
espreski baimendua ez badago, eta
ezin dituztela beraien beharrak parke,
lorategi edo espaloietan egin. Beraien
beharrak egitekotan, jabeak jarraian
jaso beharko ditu. Gainera, txakurra
arraza arriskutsukoa bada "muturre-
koa" (bozal) eraman beharko du.

Ulertzen dugu gai honetan kolekti-
bo ezberdinen interesek talka egi-
ten dutela, eta hori saihesteko txaku-
rren jabeek eskatu behar diegu
kaxkoan txakurrak lotuta eramateko,
berezi haurrak ibiltzen diren toki
eta orduetan, eta txakurren behar-
rak kaxkoan ez egiteko edo uzteko.

Datozen asteotan Herri Kontseilu-
ko kideek kaxkoan ibiltzen diren txaku-
rren jabeek jakinaraziko diegu ego-
era zein den eta modu arduratsuan
jokatze eskatuko diegu. Horretarako
idazki berezi bat prestatuko dugu
eta legeak egiten duen aipamenare-
kin batera eskuratuko diegu.



Argazkia 2000ko ekainaren 27koa da. Urte hartan jarri zen martxan Lizardi Pelota Elkartea, ofizialki. Bertan azaltzen dira Juanmari Enbil, Iñaki Goikoetxea, Joxe Miel Arruti eta Ramuntxo Urruzmendi arduradunak, garai hartako pelota ikasleekin.

“Mutil eta neska koxkorrek pelota probatzea nahi dugu”

Igeldoko Lizardi Pelota Elkartek, maila guztietan izan ditu pelotariak, orain arte. Aurten, ordea, pelotan jokatu nahi duen 11-14 urteko gaztetxorik ez dago. Elkarteko arduradunekin bildu da Orri Informatiboa.

1996an jarri zen martxan pelota taldea Igeldon, nahiz eta ofizialki, 2000 urtean sortu Lizardi Pelota Elkartea. Iñaki Goikoetxea, Juanmari Enbil, Ramuntxo Urruzmendi eta Joxe Miel Arrutik sortu zuten. “Ikusten genuen pelotan ondo zebiltzan mutil eta neskek zeudela Igeldon eta ez zegoela ezer bertan. Orduan zerbait antolatzea erabaki genuen”. Erantzuna, ona izan da. Bertatik pasa dira garai hartatik aurrerako Igeldoko ia gazte guztiak. 1996tik 2000ra, taldea ofizialki sortu gabe egon zen tartean, taldeak ez zuela ezer, azaldu dute elkarteko arduradunek eta federatzeak ate asko ireki dizkiela.

Gurasoek, haurrak animatu

Orain arte oso ondo funtzionatu du pelota taldeak. Orokorrean, 25-30 pelotari ibili izan dira eta gaur egun, 20-25 bat dabilta. “Lehen kategorian guztietan genuen jendea, azken hiru urteetan ordea, hutsunea dugu 11-14 urte bitartean. Normalean 15 urtetik aurrera uz-

ten du gazte askok, baina Igeldon alde-rantziz gertatzen ari da. Eskerrak handiek jarraitzen duten”. Neskak ere ez omen dira animatzen gaur egun. “2000 urtean 5 bat neska ibili ziren. Urte pare batez aritu ziren pelotan eta orduetik ez dugu neskarik izan”.

Hori horrela, gurasoei dei berezia egiten diete haurrak pelotara apuntatzeko. Helburua honakoa baitute: “Igeldoko mutil eta neska koxkorrek pelotara gerturatzea nahi dugu. Igeldoko eskolan dauden ume eta gaztetxoak etorri daitezela Pelota Elkartera, pelotaren kultura ezagutzera, eta bakoitzak ikusi dezala gustatzen zaion edo ez. Hori da helburua, taldeak jarraipena izatea, emaitzak etortzen badira hobe, baina hori ez da inportanteena”.

Emaitza onak

Garrantzitsuena ez izan arren, txapelketetan emaitza onak lortutakoak dira Igeldoko pelotariak. Den denak ez dituzte buruz gogoratzen, baina batzuk aipatu dituzte: Borja eta Julen Iribar anaiak txapeldun izan ziren kadete zirenean, 3. mailan. Jon Enbil eta Joritz Etxeberria, berriz, txapeldunorde, horiek ere, kadeteetan ibili zirenean, 3. mailan. Aitor Etxeberriak eta Iñaki Enbilek ere titulu bera lortu zuten, maila berean ibili zirenean. Jubeniletan, 3. mailan, Haritz Puerta eta Iñaki Enbil

txapeldunorde izan ziren. Eta kategorian berean, baina 2. mailan, Aratz Urruzmendi eta Xabi Ortiz de Urbina anti-guotarra azpitxapeldun.

Horrez gain, nabarmentzekoa dela esan dute Julen Olasagastik Gipuzkoako Herriarteko Txapelketako finala jokatu zuela Donostiarekin eta iaz, Arkaitz Etxebeste aritu zela herriartekoa jokatzeko Donostiarekin, baita ere.

Seniorrek maila eustea lortu

Orain ere txukun ari dira Igeldoko pelotariak. Gipuzkoako Txapelketa jokatzeko aritu dira irailtik abendura eta pozik dira taldeko arduradunak. Sorpresa ere hartu dute, seniorrekin. “Ondo aritzeaz gain, lehenengo mailan jokatzeko dutenek maila eustea lortu dute”, azaldu dute. Orain, urtarrilarekin batera, Udaberriko Tomeoa hasiko da, apirilera arte luzatuko dena.

Loteria salgai eta festa, Gabonetan

Pelotarako beharrezko gauzak erosteko eta bidaiak ordaintzeko dirua behar da eta elkartek, urtero bezala, Gabonetako Loteria jarri du salgai.

Bestalde, Gabonetan, festa egun bat antolatzen dute Antiguorekin txandaka eta aurten Igeldori tokatu zaio. Horrez gain, datorren urtean, Igeldoko frontoiak 100 urte beteko ditu eta zerbait berezia egitekotan dira. ■

Gabonak 2011-2012

kixmi disialdi taldearen egitaraua

Abenduak 17, larunbata:

16:30etan, GABONETAKO
ENSAIOA eta ondoren
TAILERRA, Kultur Etxean.

Abenduak 24, larunbata:

14:00etan, GABONETAKO
ESKEA, Plazatik abiatuta.

Ondoren, OLENTZERORI
ONGIETORRIA Plazan eta
LUNTXA Din-Din elkartean.
Din-Dinek antolatua izango da luntxa.



Abenduak 31, larunbata:

14:00etan, GABONETAKO ESKEA, Plazatik abiatuta.



Urtarrilak 14, larunbata:

20:00tan, ESKEKO AFARIA,
1996 urtetik gora eskean
atera diren guztientzat.
Plazan elkartuko dira.

Oharra: Eskeko egunetan
baserritarrez jantzita etorri
beharko da eta 6 urtetik
beherako haurrek guraso
edo tutore batekin etorri
beharko dute!



**Igeldoko
Herri
Kontseilua**

Laguntzailea:

